

IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25800 - Saskibaloiren eta Boleibolaren Oinarriak

ECTS kredituak:

9

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai hau M04- Kirolen Oinarriak moduluaren barruan kokatzen da.

Irakasgaiaren helburua saskibaloia eta boleibolari buruzko ikuspegi orokor bat ematea da. Era berean Kirol horien praktikak gazteen formakuntzan izan dezaketen garrantziaz ohartzea eta hezkuntzara aplikatu ahal izateko araudia ezagutzea, oinarri tekniko-taktiko eta didaktikoekin batera. Irakasgaiaren izena saskibaloia eta boleibolaren oinarriak izanik, emango diren edukiak oinarritzkoak eta orokorrak dira, kirol horien hastapenera bideratuak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiaren Gaitasunak:

1. Saskibaloiren eta boleibolaren oinarritzko egiturak eta egitura aurreratuak ezagutzea eta ulertzea, horietan parte hartu ahal izateko eta esku hartu ahal izateko.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK: Ikasleek esparru orokor gisa ezagutuko dituzte saskibaloiren eta boleibolaren egiturak, oinarritzkoenetatik hasi eta aurreratueneraino, beren bizitza profesionalean esku hartzeko eremu gisa.

2. Ikasleak bizitako egoeretatik abiatuta, saskibaloiko eta boleiboleko oinarritzko egoerak ebazteko ekintza-printzipioak eta moduak eskuratzea.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK: Ikasleek keinu teknikoak ezagutu, bereizi eta gauzatuko dituzte, praktikan planteatzen diren egoeren arabera.

3. Irakatsi eta ikasteko prozesua identifikatzea eta prozesu horretan esku hartzea, saskibaloiren eta boleibolaren berezko oinarri metodologikoak aztertu, etapa bakoitzean aplikatzeko.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK: Ikasleek, saskibaloiren eta boleibolaren oinarri metodologikoetan oinarrituta, etapa desberdinetarako irakaskuntza-ikaskuntza progresioak diseinatzen eta ebaluatzen jakingo dute.

4. Jolas-sistemak ezagutzea, aztertzea eta erabiltzea, eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren maila guztietan aplikatzea.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK: Ikasleek ikaskuntza-mailen arabera aplikatzen diren jolas-sistemak ezagutuko dituzte. Sistema bakoitzaren ezaugarriak eta horiek behar bezala aplikatzeko bereganatu behar diren alderdi eragileak identifikatuko ditu.

Zeharkako gaitasunak

G019 Lidergo-trebetasunak, pertsonen arteko harremanak eta taldean lan egiteko trebetasunak garatzea. (landu, ebaluatu eta kalifikatu) IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Modu proaktiboan parte hartzen du talde lana sortzen, diseinatzen eta egiten.

G020 Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea. (landu, ebaluatu eta kalifikatu) IRAKASKUNTZA EMAITZAK: Arazoaren jatorria identifikatzen du eta konpontzeko beharrezkoak diren baliabideak biltzen ditu.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

I. GAI MULTZOA: Saskibaloiren eta Boleibolaren egitura

1. Gaia. Jatorria eta garapena

2. Gaia. Oinarritzko kontzeptuak

2.1. Gaur egungo egoera.

2.2. Araudia eta bere aldaketak.

2.3. Terminologia eta izendapen espezifikoak.

II. GAI MULTZOA: Joko ekintza

3. Gaia. Ekintzaren printzipioak

3.1 Saskibaloiren ekintzaren printzipioak

3.2 Boleibolaren ekintzaren printzipioak

4. Gaia. Joko egiturak
- 4.1 Saskibaloiaren egiturak
- 4.2 Boleibolaren egiturak

- III. GAI MULTZOA: Joko sistemak
5. Gaia. Joko sistemak
- 5.1. Saskibaloiko joko sistemak
- 5.2. Boleiboleko joko sistemak

- IV. GAI MULTZOA Ikaste-irakaste prozesua saskibaloi eta boleibolean
6. Gaia. Ikaste-irakaste prozesuaren faseak, ezaugarriak, helburuak eta edukiak
- 6.1. Irizpide orokorrak
- 6.2. Ikaste irakaste faseak

7. Gaia. Mini kirolen aplikazio espezifikoa
- 7.1. Minibasket
- 7.2. Mini voley

METODOLOGIA

Irakasgaiak izaera teoriko praktikoa dauka. Eskola teorikoak gelan emango dira, gela eta landa praktikak berriz kiroldegian.

G019 zeharkako gaitasuna, gela eta landa praktiketan garatuko diren talde egoeren bidez eta proiektu didaktikoaren garapenarekin ebaluatuko da.

G020 zeharkako gaitasuna, gela eta landa praktiketan eta proiektu didaktikoaren bakarkako zein taldeko probekin ebaluatuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		40						20
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45		60						30

Legenda:

M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 35
- Test motatako proba % 35
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 15
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bi modulu ditu: Saskibaloia eta Boleibola. Batezbestekoa kalkulatzeko modulu bakoitzean %50a gainditu behar da.

1.- Ebaluazio jarraia:

- Proiektu didaktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %30a. Proiektua bakarka zein taldeka egingo diren probez osatua egongo da. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da.

- Proba teoriko-praktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %70a. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da.

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

2.- Azken ebaluazioa:

- Proiektu didaktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %30a. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da. Azterketa egunean aurkeztu behar da.
 - Proba teoriko-praktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %70a. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da. Azken ebaluazioaren batezbestekoa kalkulatzeko modulu bakoitzean %50a gainditu behar da.
3. Deialdiari uko egitea.
- 3.1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.
- 3.2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, ikasleak uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat.
- 3.3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.
4. Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentsio» (0,0) kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azken ebaluazioa:
Ikasturtean ebaluazio jarraia egin duten ikasleei lortutako emaitza positiboak gordeko zaizkie.

- Proiektu didaktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %30a. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da. Azterketa egunean aurkeztu behar da.
 - Proba teoriko-praktikoa: Modulu bakoitzaren azken emaitzaren %70a. Atal hau gainditzeko 10etik 4 bat atera behar da. Azken ebaluazioaren batezbestekoa kalkulatzeko modulu bakoitzean %50a gainditu behar da.
- Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da proba teorikora ez aurkeztea.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Alderete, J. L., Osma, J. J. Baloncesto. Técnica individual de ataque. Ed. Gymnos. Madrid, 1998.
- Alderete, J. L., Osma, J. J. Baloncesto. Técnica individual de defensa. Ed. Gymnos. Madrid, 1998.
- Torres, J., (1991). Manual del preparador de minivoley. Sevilla: F.A.VB. / La Voz.
- Ureña, A., González Ortiz, M., Morente, C. J., Santos del Campo, J. A., Martínez María, M., Torres, J., Vallejo, M.^a D. (1991). Manual del preparador de voleibol. Nivel I. Sevilla: F.A.VB. / La Voz.
- Palou, N., Hernández Cotter, L., Santos del Campo, J. A., Herrera, G., Callejón, D., Ávila, F., Ureña, A., Díaz García, P., Fraile, F. M. (1992). Voleibol. Madrid: C.O.E.
- Bayer, C. (1986). La enseñanza de los juegos deportivos colectivos. Barcelona: Hispano Europea.
- Blázquez, D. (1995). La iniciación deportiva y el deporte escolar. Barcelona. Inde
- Comas, Manel, Baloncesto más que un juego. Volúmenes del 1 al 20. Ed. Gymnos. Madrid, 1991.
- Comité Olímpico Español. Baloncesto. España, 1993.
- Del Rio, José Antonio. Metodología del baloncesto. Ed. Paidotribo. Barcelona 1990.
- Díaz, J. (1982). Voleibol en la escuela. Madrid: Gymnos.
- Diputación Foral de Guipúzcoa. Programa técnico iniciación al baloncesto.
- Giménez, J., Sáenz-López, P., Diaz, M. (1997). El deporte escolar. Universidad de Huelva.
- Giménez, F. J. Sáenz-López. P. (2003). Aspectos teóricos y prácticos de la iniciación al baloncesto. Sevilla. Wanceulen
- Lorenzo, A., Prieto, G. Nuevas perspectivas en la enseñanza del baloncesto. Baloncesto Formativo en la Red. www.Baloncestoformativo.com.ar.
- Minibasket. Manuale Técnico. Federazione Italiana Pallacanestro. Roma.
- Olivera, J. (1992). 1250 ejercicios y juegos en baloncesto. Barcelona. Paidotribo.
- Riera, J. (1989). Fundamentos del aprendizaje de la técnica y táctica deportivas. Barcelona. Inde
- Ruiz, F; García, A; Casimiro, A.J. (2001). La iniciación deportiva basada en los deportes colectivos. Madrid. Gymnos
- Santos, J.A., Viciano, J., Delgado, M.A. (1996). Voleibol. Madrid: C.S.D.
- Zarragoitia, A., Txopitea, A. (2006). Monitore eta irakasleentzako fitxa didaktikoak. Boelibola. Bergara: Debarroko Euskara eta Kirol zerbitzuak ISBN: 84-934178-4-X

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Clinic. Revista de la AEED.

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.rfevb.com/>
<https://www.cev.eu/>
<http://acb.com/>
<http://www.fivb.org>
<http://www.fedvasvol.eu/>
www.fiba.basketball/es/wabc
www.sikana.tv/es/sport/learn-to-play-basketball

OHARRAK